

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

113/2023 Foru Agindua, martxoaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita 88/2022 Foru Agindua, otsailaren 11koa, «Erabilera turistikoko etxebizitzaren lagapenari buruzko aitorten informatiboa» izena duen 179 eredua onetsi eta hura aurkezteko baldintzak eta prozedura ezartzen dituen.

Otsailaren 11ko 88/2022 Foru Aginduak, «Erabilera turistikoko etxebizitzaren lagapenari buruzko aitorten informatiboa» izena duen 179 eredua onetsi eta hura aurkezteko baldintzak eta prozedura ezartzen dituenak, informatzeko obligazioa arautu zuen Espainiako lurraldean kokatuta dauden etxebizitzak turistikoen errentamenduan bitartekari diren pertsona eta entitateentzat, Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak (abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretua) 72 ter artikuluan jasotakoarekin bat.

Foru aginduak dio eredua hiru hilean behin aurkeztu behar dela, hiruhileko natural bakoitza amaitu eta hurrengo hilabete naturalaren barruan.

Aitorten horren edukia aztertuta, egokitzen jo da aurkezteko epea aldatzea eta urtean behin aurkeztu beharko dela ezartzea.

Foru agindu hau emateko, aintzat hartzen dira Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak (abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretua) 38.1 eta 72 ter.5 artikuluetan jasotzen dituen gaikuntzak.

Horrenbestez, hau,

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea otsailaren 11ko 88/2022 Foru Agindua, «Erabilera turistikoko etxebizitzaren lagapenari buruzko aitorten informatiboa» izena duen 179 eredua onetsi eta hura aurkezteko baldintzak eta prozedura ezartzen dituen.

Honela aldatzen da otsailaren 11ko 88/2022 Foru Agindua, «Erabilera turistikoko etxebizitzaren lagapenari buruzko aitorten informatiboa» izena duen 179 eredua onetsi eta hura aurkezteko baldintzak eta prozedura ezartzen dituen:

Bat. 5. artikulua honela geratzen da idatzita:

«179 eredua aurkezteko epea urte bakoitzeko urtarilaren 1etik 31ra bitartekoa izango da, eta aurreko urte naturalari dagozkion informazioari eta eragiketei dagozkien aurkeztuko da.»

Bi. Eranskinetako Aldiari buruzko zerrenda motako eremuetan baimendutako gakoak eta balioak honela geratzen dira idatzita:

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 113/2023, de 10 de marzo, por la que se modifica la Orden Foral 88/2022, de 11 de febrero, por la que se aprueba el modelo 179, «Declaración informativa de la cesión de uso de viviendas para uso turístico» y se establecen las condiciones generales y el procedimiento para su presentación.

La Orden Foral 88/2022, de 11 de febrero, por la que se aprueba el modelo 179, «Declaración informativa de la cesión de uso de viviendas para uso turístico» y se establecen las condiciones generales y el procedimiento para su presentación, regula la obligación de información que afecta a las personas y entidades que intermedien entre personas y entidades cedentes y cesionarias de viviendas para uso turístico situadas en territorio español, con arreglo a lo previsto en el artículo 72 ter en el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre.

La orden foral establece la presentación del modelo con una periodicidad trimestral, debiendo presentarse durante el mes natural siguiente a la finalización de cada trimestre natural.

Analizado el contenido de dicha declaración, se ha considerado procedente modificar su plazo de presentación, de forma que se realice con una periodicidad anual.

La presente orden foral se dicta al amparo de las habilitaciones contenidas en los artículos 38.1 y 72 ter.5 del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo único. Modificación de la Orden Foral 88/2022, de 11 de febrero, por la que se aprueba el modelo 179, «Declaración informativa de la cesión de uso de viviendas para uso turístico» y se establecen las condiciones generales y el procedimiento para su presentación.

Se introducen las siguientes modificaciones en la Orden Foral 88/2022, de 11 de febrero, por la que se aprueba el modelo 179, «Declaración informativa de la cesión de uso de viviendas para uso turístico» y se establecen las condiciones generales y el procedimiento para su presentación:

Uno. El artículo 5 queda redactado en los siguientes términos:

«El plazo de presentación del modelo 179 será el comprendido entre el 1 y el 31 de enero de cada año, en relación con la información y operaciones que correspondan al año natural inmediato anterior.»

Dos. Las claves y valores permitidos en campos de tipo lista Periodo de su anexo, quedan redactados en los siguientes términos:

Aldia:

Balioak	Deskribapena
1T	Lehen hiruhilekoa
2T	Lehen hiruhilekoa
3T	Lehen hiruhilekoa
4T	Lehen hiruhilekoa
OA	Urtekoa

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

179 eredua aurkezteko epe berria aplikagarria izango da, lehen aldiz, 2023ko ekitaldiari dagokionez 2024ko urtarrilean aurkeztu behar diren aitorten informatiboetan.

Donostia, 2023ko martxoaren 10a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.
(1854)

Periodo:

Valores	Descripción
1T	Primer trimestre
2T	Segundo trimestre
3T	Tercer trimestre
4T	Cuarto trimestre
OA	Anual

Disposición final única. Entrada en vigor.

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

El nuevo plazo de presentación previsto para el modelo 179 será aplicable, por primera vez, a las declaraciones informativas correspondientes al ejercicio 2023, que deberán presentarse en enero de 2024.

San Sebastián, a 10 de marzo de 2023.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jokin Perona Lerchundi.
(1854)